



HERNANI'N MUSIK - UDAZKENEKO DENBORALDIA

Hiru kontzertu, Hernani'n Musik ekimenaren udazkeneko denboraldian

Ostegunean, Xenpelar eta Chopin-en musika uztartuko dituzte Andoni Egaña eta Xabier Lizasok. Azaroan, jazz izango da protagonista, eta abenduan berriz, *la bel canto*, opera genero liriko.

HERNANI'N Musik ekimenaren barruan udazkeneko denboraldirako antolatu diren 3 kontzertuen berri eman zuten atzo, arduradunek. Ekimenaren helburuei erantzunez, estilo desberdinak uztartu, musika estilo anitzak erakutsi, eta musikari hernaniarrak ezagutzeko aukera izango da denboraldi honetan. «Programa ez da kasualitatea», azaldu zuen Joxan Goikoetxea, «Hernani errota dauden zaletasunei tokia egin nahi izan diegu».

Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Bertsozale Elkarteko Lakun enpresako zuzendari Mikel Mariskal, Jazz Quartet taldeko Satxa Soriazu hernaniarra eta Jorge Abadías, Joxan Goikoetxea musikaria, Idoia Noble aurkezlea, Hernani Musika Eskolako zuzendari Iñaki Eguren, Hernaniko alkate Luis Intxauspe, eta kulturako arduraduna, Arantxa Laburu.

'Bi Arreba', ostegunean
Hernani'n Musik ekimeneko denboraldi honetako lehen kontzertua ostegun honetan izango da. Andoni Egaña bertsolariak eta Xabier Lizaso piano-jole oriotarrak *Bi Arreba* ikuskizuna estreinatuko dute, 20:00etan, Biterin. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 7 eurotan.

Emanaldian, Chopin eta Xenpelar uztartuko dituzte. Garai berean, egoera antzekoak bizi izan zituzten bi artista haundi hauek. Beste gauza batzuen artean, beren arreba



Ekimenaren sortzaile, bultzatzaile eta parte hartzaileak, atzoko aurkezpenean.

izan zituzten gogoan, heriotzean.

Ikuskizunaz gozatzera gerturatzen denak, bi estilo ezagutzeko aukera izango du: musika klasikoa eta herri honetan klasiko bat dena, hau da, bertsolaritza.

Musikari hernaniarrentzako tokia
Hernani'n Musik ekimenaren beste helburuetako bat da musikari hernaniarrei tokia egitea, eta hauen lana ezagutzera ematea.

Ildo horretatik, azaroaren 9ko kontzertuan Satxa Soriazu hernaniarra entzuteko aukera izango da, *Jazz*

Quartet taldearekin. Bertan, Jorge Abadías gitarrak-jolearekin batera ateratako *Zuri* diska aurkeztuko du, eta beste bi musikari izango dituzte lagun: Aritz Luzuriaga kontrabaxuan eta Borja Berrueta perkusioan.

Abenduan, Gauez Operan
Joxan Goikoetxearen esanetan, «Hernaniko kantu eta opera zaleentzako saria da» abenduaren 5ean egingo den 'Gauez operan' emanaldia. Kontzertu hau gaueko 22:00etan izango da, ilunaren misterioaren laguntzaz *bel canto*aren xarman murgildu ahal izateko.

2013rako eskariak
Denboraldi honetako kontzertuak 4 izatetik 3 izatera pasa dira, egungo egoera ekonomia dela eta. Hori horrela, «Hernani'n Musik ekimeneko estruktura sendotzeko eta mantentzeko ahalegina egiteko» eskaria luzatu zioten antolatzaileek Udalari.

Era berean, alkateak nabarmendu zuen «herri horrelako eskaintza zabala egotea garrantzitsua dela», eta ekimen honen alde lanean jarraitzeko eskaria luzatu zuen, «nahiz eta denok egoerara egokitu beharko dugun, eta 2013ko aurrekontuek eragina izango duten». ||

❖ LITERATUR SOLASALDIAK 'Ez obeditu inori' gaur mintzagai

Mikel Peruarena ereñotzuarren *Ez obeditu inori* nobelaz ariko dira gaur, 19:30etatik aurrera, Biterin. ||

❖ UDALA Ohiz-kanpoko Plenoa, gaur

Arratsaldeko 19:00etan ohiz-kanpoko Osoko Bilkura egingo da Udaletxean, Kutxarako kontseilariak izendatzeko. ||

❖ Ur-presio aldaketak, gaurtik ostiralera

Gaurtik ostiralera bitartean, ur sarean lanak egingo direla adierazi du Udalak. Hori dela eta, Plaza Berriko beheko bizi diren bizilagunek ur-presio aldaketak nabaritu dituzte. ||

❖ HAUTSEKUNDEAK EH Bilduren ekitaldia, gaur

EH Bilduren ekitaldia izango da gaur, 19:30etan Tilosetan. Bertan izango dira Marian Beitialarrangoitia eta Lur Etxeberria, hautagai hernaniarrak. ||

❖ MENDIRIZ MENDI Bilera irekia gaur, egutegia finkatzeko

2013ko jarduerak eta irteeren egutegia finkatzeko bilera egingo da gaur, 20:00etan, Mendiriz Mendi elkarteko bulegoan (Iturregi plazan). Proposamenik duen edonoren gonbidatuta dago. ||

❖ PAUSOKA Tapoi bilketa bertan behera

Hernaniko Pausoka elkarteko kideek jakinarazi dute azartatik aurrera ez dutela plastikozko tapoi bilketarekin jarraituko. Era berean, eskerreak eman nahi dizkiete herritarrei eta Udalari: «laguntza itzela eman digute». ||

Soluzioak zure esku
ES TU MOMENTO

Bozkatu

ehbildu

Urriak 16 HERNANIKO EKITALDIA
Asteartea 19:30etan Tilosetan

Urriak 18 BIDEO EMANALDIA
Ostirala 20:30etan Biterin

gse
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
www.gseasesores.net

CATALANA OCCIDENTE

Aseguruak

Atzeta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

-Barduta -Burrerena -Utegekoa

JOSU ALKORTA
harategia

JABUGORIK OHENA -
BENETAKO JABUGORIK

Nafar kalea 11 Tel: 943 551 60

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 FARMAZIAK ● Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauzez: Etxebeste Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Goizean zehar hodeiak ugari-ko dira, baina ez du ia euririk egingo. Hego-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da. Min.11°/Max.22°
BIHAR Hodeiak ugari egingo dira eta euria egiteko aukera haundituko da. Hego-mendebaldeko haize bolada gogorak izango ditugu. Min.12°/Max.23° (euskalmet)

EREÑOTZUKO XXIV. UDAZKEN KULTURALA

Gaur hasiko da Ereñotzuko Udazken Kulturala

'Karakorun bizikletan' diapositiba emanaldiarekin hasiko da Ereñotzuko XXIV. Udazken Kulturala. Festa egun handia berriz, igandea izango da.

GAUR arratsaldeko 19:00etan, Karakorun bizikletan diapositiba emanaldia izango da Ereñotzuko kultur etxean, Aitor Dorronsoro, Joseba Aizpuru eta Ramon Arrizabalagaren eskutik. Pakistan ezagutzeko aukera polita izango da.

Ostiralean, Jon Maia bertsolariak zuzendutako *Gazta zati bat* dokumentala jarriko dute 22:30etan.

Larunbaterako, partxis lehiaketa antolatu dute, 11:00etatik aurrera. Udazken Kultural honetako egun

haundia berriz, igandea izango da.

Auzoko festa, igandean
 Iganderako ekintza ugari antolatu dituzte Ereñotzun.

Goizeko 11:30etan bertsoak eta ipuinak nahastuko dituen *Bertsolarhitza* emanaldia izango da kultur etxean. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera berriz, auzoko festari hasiera ofiziala emango zaio.

Bertan, hainbat sagardo dastatu eta gaztain erreka jateko aukera izango da, auzoko produktuekin azoka

ere jarriko da, eta patata tortila lehiaketa egingo da.

Bestalde, egun osoan zehar X. Solano eta J. M. Beasain trikitilariak jai girotzen arituko dira.

Izena emateko azken eguna
 Azaroaren 27, 28 eta 29an 'Bizikletak nola konpondu eta bere mantenimendua' ikastaroa emango du Patxi Minerrek.

Gaur amaitzen da izen-ematea. Goizez deitu 943 55 10 00 telefonora, edo idatzi hona: olakAE@gmail.com. ||

'HERNANI' MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZA



Abeslari hernaniarrak gogoz txalotu zituzten Beguesen

Ostiralean kontzertua eman zuen abesbatzak Beguesen, eta oso harrera ona egin zien publikoak. Asteburuan Bartzelonan izan ziren.

ELKARTRUKE bati erantzunez, 'Hernani' Musika Eskolako abesbatza Bartzelonako Begues herrian izan da asteburuan, kontzertua emateko. Bertako 'Cor Jove Ad Libitum' abesbatza Hernanin izan zen lehengo urtean, eta orain hernaniarrak hartu dituzte.

Emanaldian abestutako 9 abestien artean 3, katalanez kantatu zituzten hernania-

rrak, eta oso harrera ona izan zuten Begueseko publikoaren artean.

Bertako abesbatzak ere abestu zuen, eta amaitzeko, elkarrekin kantatu zuten bi koruek.

Elkartruke aberatsa

Elkartrukeari esker, Hernaniko abesbatzak Begueseko abeslari gazteak ezagutu eta harremanak sendotu ditu.

Era berean, kultura kataluniarra ezagutzeko aukera izan dute, eta Bartzelona ere bisitatu dute.

5457, zenbaki sariduna

Mariskada bat zozketatzeko errifak saldu zituen abesbatzak, bidaia ordaintze aldera. Zenbaki sariduna 5457a da, eta irabazleak Musika Eskolatik pasa behar du saria jasotzeko. ||

❖ MOLOTOFF IRRATIA - 91.8 FM

Roots Reggae eta Dance Hall doinuak gaur, DJ Plan-en eskutik

Gaur, Kale Nagusiko Sound Sisterraren irratsaioan, sesio berezia izango da entzungai. DJ Plan-en eskutik, Roots Reggaea eta Dance Hall doinuak entzun ahal izango dira, gaueko 22:00etatik 23:00etara bitartean. ||

◆ SASKIBALDIA

Emaitza txarrak, azken jardunaldian

Hernaniko saskibaloitzaileen azken jardunaldia ez da oso ona izan. Ostegunean, 2garren urteko infantilek 45 eta 27 galdu zuten Zubiri Manteoren aurka. Asteburuan berriz, 2garren urteko jubenilek 53 eta 74 galdu zuten Cafes Aitona A taldearen aurka. ||

◆ ESKU PELOTA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

12 pelotari infantilen debuta, asteburuan

Asteburuan, Hernaniko 12 pelotari infantilek lehenengo aldiz hartu dute parte esku pelotako Gipuzkoako Txapelketan. Emaitzak ez dira nahi bezain onak izan, baina pelota elkartearen esanetan oso positiboa izan da parte hartzea, «argi geratzen baita Hernaniko harrobiak funtzionatzen jarraitzen duela». Bestalde, Elizalde eta Pagola kadeteek galdu egin dute. Txapelketako lehenengo porrota izan da, beraz, oraindik aukera dute txapelak irabazteko. ||

ESKU PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa		
Kadeteak	Fibar/Elizalde-Pagola	22-20
Infantilek	Alain Agirre/Alde Zaharra	0-2
Infantilek	Endika Arizmendi/Oiarpe	0-2
Infantilek	Ioritz Berasarte/Añorga	2-0
Infantilek	Iñigo Arrozpide/Eple	1-2
Infantilek	Euskal Giroa/Ander Lazkano	2-0
Infantilek	Garkoitz Arizmendi/Umiet	2-0
Infantilek	Ekaiz Insausti/Umiet	2-0
Infantilek	Almar Gorrotxategi/Oier Ezeiza	0-2
Infantilek	Eñaut Gorostidi/Ekaiz Florza	0-2
Infantilek	Alde Zaharra/Iturrioz	2-0

❖ GOIZ EGUZKI

Hondarribiko irteerako plazen zozketa

Goiz Eguzkik irteera antolatu du urriaren 20an Hondarribia, Oiartzun eta Donibane Loitzunera, eta izena eman dutenen artean plazen zozketa egingo da bihar, 16:00etan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

Martin Arteaga Olazabal

Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -

Martinen seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zireten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2012ko urriaren 16an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Garaje itxia alokagai Urbieta kalean. Deitu: 618 323 154

Pisu amueblatua alokatzen dut, 2 gelarekin. Banku abala derrigorrezkoa da. Deitu: 677 247 404.

JAIOTZE ETA ERDITZEAREN PRESTAKETA. Haurtoentzako masajea. Zuzendutako soinketa haurtoentzako. SASOIKO (Marieluts, 4 behe) Deitu: 943 331 183 / 656 721 492 www.sasoiko.com

ETXETIKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)